



gernika-lumoko  
euskara zerbitzua



## **II. ERANKINA**

**(Plan Estrategiko berria moldatzeko  
partaidetza prozesua / dinamizazio saioak)**





gernika-lumoko  
euskara zerbitzua



## **EUSKARA BATZORDEAK 2012ko ABENDUAREN 19an IZANDAKO BILKURARI DAGOKION AKTA.-**

### **Batzarreratuak:**

*Esperanza Uriarte and (Euskara Zinegotzia)*  
*Estiñe Astorkia and. (Euskara dinamizatzailea)*  
*Karlos Gorrindo jna. (Treatzailea/Itzultzailea)*  
*Jaione Iturbe and. (Udal Euskaltegia)*  
*Igone Olabarria and. (Gernikako AEK)*  
*Agurtzane Renovales and. (Barrutia ikastetxea)*  
*Laura Etxabe and. (Seber Altube ikastola)*  
*Edurne Atxikallende and. (Busturialdeko Irrati Telebista)*  
*Anabel Gerrikabeitia and. (Merzede ikastetxea)*  
*Mariasun Barrenetxea And. (Allende Salazar ikastetxea)*  
*Julen Bilbao jna (Ekin autoak enpresa)*  
*Xabier Goiria jna. (Ehunzango gazte elkarte)*  
*Rosa Okariz and.*  
*Isidro Rodriguez jna.*

### **Idazkaria:**

*Bittor Zarrabeitia jna. (Euskara Teknikaria)*

Hasiera ordua: 18:30

Amaiera ordua: 20:00





gernika-lumoko  
euskara zerbitzua



Ezin etorria zuritu dutenak:

*Idoia Fernández and.*

*Luis Ortuzar jna (EAJ-PNVko bozeramailea)*

*Begoña Zabaleta and. (San Fidel ikastola)*

*Pernando Beasterretxea jna. (Bust. Eusk. Bizi)*

## **AZTERGAI BAKARRA.- Euskararen Plan Estrategiko barria moldatzeko, lehenengo bilkura. Helburua: euskararen egungo egoerari buruzko hausnarketa orokorra.**

Erantsita dagoen gidoiaren arabera (I. eranskina) bildutakoak bi taldetan banatu dira eta talde bakoitzak “Gernika-Lumon euskararen egungo egoera”-z hausnarketa egin du, pozteko eta kezkatzeko faktoreak azpimarratuz.

Ondoren, talde biak batu, egindako ekarpen guztiak paperean jarri, errepasso orokorra egin eta batzarkide bakoitzak gometxak jarri dizkiete euren ustez garrantzirik gehien duten faktoreei, lehenengo pozteko faktoreei eta gero kezkatzekoei.

Jarduera horren emaitzak II. eranskinean daude.

Egiteke geratu da gidoian aipatzen den bigarren jarduna (“Adostuta zein den abiapuntua, 2017a imajinatuko dugu, nolakoa izatea nahiko genukeen...”) eta hurrengo batzarrerako utzi da.

Beste aztergairik ez dagoenez, amaitutzat jo da batzarra.

Izp.: Euskara Zinegotzia  
Esperanza Uriarte

Izp.: Euskara Teknikaria (HNT1)  
Bittor Zarrabeitia



## I. ERANSKINA

### PLAN ESTRATEGIKOA LANTZEKO DINAMIZAZIOA - 1. BILERA

| NORK                   | ZER   | minutuak |
|------------------------|---|----------|
| Espe + Bittor          | <b>Aurkezpena:</b><br>Zertarako batu gara, azkenengo euskara batzordean banatutako kronograma banatu<br>Gaur landuko duguna: orain arteko datuak eta emaitzak kontuan hartuta, gaur abiapuntua bateratzen ahaleginduko gara. Ondoren, datozen 5 urteetan nora iritsi nahi dugun adosteko denon artean.  | 5        |
| Estiñe                 | <b>Biribilean jarrita denok ronda egin: aurkezpenak. Bakoitzak bere burua aurkeztu eta pegatinaran norbere izena jarri.</b>   | 5        |
| Estiñe                 | <b>Lan-taldea antolatuko gara, horretarako koloretako goxokiak ditugu. Eskua poltsan sartu eta bakoitza kolore bereko goxokidunekin jesarri. (lan-taldeak 8-10 lagunekoak izango dira)</b>  | 5        |
| Karlos, Bittor, Estiñe | <b>Lan-talde bakoitzaren helburua: gaur egungo egoera adostea; euskara herrian. Lan-talde bakoitzean dinamizatzaile bat izango dogu:</b><br>1. <b>Post-it-ak erabilita:</b><br>a. <b>Kide bakoitzak idatzi herriko euskararen egoera (presentzia, erabilera...) kontuan hartuta POZTEKO 3 aldagai. Eta ahoz esan lan-taldean bertan.</b><br>b. <b>Kide bakoitzak idatzi herriko euskararen egoera (presentzia, erabilera...) kontuan hartuta HOBETZEKO 3 aldagai. Eta ahoz esan lan-taldean bertan.</b> | 20       |
| Espe + Igone?          | <b>Ariketa egiten ari garen artean post-it-ak batu eta paretako muraletan idatzi bertan jasotakoa (poztekoak/hobetzekoak). Errepikatutakoak sinplifikatu</b>  | 5        |
| Espe                   | <b>Denok batera komentatu jasotakoa</b><br><b>Zerrenda kontuan hartuta kide bakoitzak gometxak jarri lehentasunezkoari: berdea poztekoari /gorria hobetzekoari</b>  | 10       |
| Estiñe                 | <b>Adostuta zeintzuk den abiapuntua, 2017a imajinatuko dugu, nolakoa izatea nahiko genukeen. Herriko euskararen erabilera 2017an . Amets egingo dugu. (musika eta globoa)</b><br><b>Irudikapena amaituta kide bakoitzak orrialde batean idatzi du imajinatu duena</b><br><b>Paper guztiak jaso</b>  | 15       |
| Espe                   | Jasotako datu eta dokumentuak ordenatu eta datorren hilabeteko bileran jarraituko dugu lantzen<br>Saioari itxiera eman: biribilean jarri eta bana-bana galdetu: zer daramazu eta nola zoaz (ez du balio "ondo "hitza erabiltzeak)   | 10       |

Urdinez dagoena egiteke geratu da hurrengo batzarrerako.



## EUSKARAREN EGOERA OROKORRA GERNIKA-LUMON (NABARMENTZEKOAK) ERANSKINA

II.

### GARRANTZIA DUTEN FAKTOREAK (garrantzia gutxi 1 eta garrantzia oso handia 5)

| Pozteko faktoreak   | Balorazioa |   |   |   |   | Kezkatzeko faktoreak  | Balorazioa |   |   |   |   |
|---|------------|---|---|---|---|---|------------|---|---|---|---|
|   | 1          | 2 | 3 | 4 | 5 |   | 1          | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 1. Umeek euskaraz egitea, baita gazteek ere                       |            |   |   |   | X | 1. Erakundeetan euskara ezinbesteko izatea  |            |   |   |   | X |
| 2. Familia euskaldunak euskaraz jardutea                          | X          |   |   |   |   | 2. Behar zaion garrantzia ez ematea euskarari                                       |            | X |   |   |   |
| 3. Ikastetxeetan normalkuntza planak garatzea                     | X          |   |   |   |   | 3. Hizkuntza integrazioa indartzea (integrazio tresna)                              |            |   | X |   |   |
| 4. Euskaldunen interesa euskara ikasteko                          |            | X |   |   |   | 4. Diru laguntzak izatea  | X          |   |   |   |   |
| 5. Euskara jakiteak prestigioa ematea                             | X          |   |   |   |   | 5. Ez dakitenek baliaabideak izatea   |            | X |   |   |   |
| 6. Euskara ikasteko aukera izatea, komunikatzeko                  | X          |   |   |   |   | 6. Kultur Etxean eta abarretan ekintzak gazteleraz                                  | X          |   |   |   |   |
| 7. Anbulatorioan euskarari garrantzia ematea                      | X          |   |   |   |   | 7. Euskaldun zaharrek erdarara jotzeko ohitura                                      | X          |   |   |   |   |
| 8. Hizkuntza paisaia aldatu egin da onerako                       | X          |   |   |   |   | 8. Euskara ikastea doakoa izatea  | X          |   |   |   |   |
| 9. Enpresetan euskara planak garatzea                             |            |   | X |   |   | 9. Etorri berriek ez dute sentitzen ikasi beharrik                                  |            |   | X |   |   |
| 10. Erabilpenaren portzentajea (garrantzitsua) %49                | X          |   |   |   |   | 10. Ez dakitenei erraztasun gehiago eman ikasteko                                   |            | X |   |   |   |
| 11. Udaleko Euskara Arloaren ekimena (bekak, talde bereziei lag.) | X          |   |   |   |   | 11. Trafiko ikurrak/ panelak/kartelak euskaraz bakarrik                             | X          |   |   |   |   |
| 12. Eskola hizkuntzaren menderatze maila                          | X          |   |   |   |   | 12. Ekitaldi gehiago antolatu euskaraz: antzerkia, zinema, hitzaldiak (helduentzat) | X          |   |   |   |   |
| 13. Eskolen lana etorkinen euskalduntzean                         | X          |   |   |   |   | 13. Euskararen erabilera politikarien artean  |            |   |   |   | X |
| 14. Erabilera mailak gora egitea                                  |            |   |   | X |   | 14. Batzuen ustez euskarak lana topatzeko baino ez du balio                         | X          |   |   |   |   |
| 15. Sare sozialetako zabalkundea                                  | X          |   |   |   |   | 15. Derrigortasuna ez ezartzea  | X          |   |   |   |   |
| 16. Eskola ume zein gazteen artean euskara handitu/indartu        | X          |   |   |   |   | 16. Lehen hitza erdaraz izatea  | X          |   |   |   |   |
| 17. Anbulatorioko harrera gunean euskara hedatu/indartu           | X          |   |   |   |   | 17. Etorri berriek ez dute sentitzen ikasi beharrik                                 | X          |   |   |   |   |
|   |            |   |   |   |   | 18. Bizkaiera jatorraren galera prozesua  |            | X |   |   |   |
|   |            |   |   |   |   | 19. Batzarretan gaztelaniaren erabilera   | X          |   |   |   |   |
|   |            |   |   |   |   | 20. Globalizazioaren presioa hizkuntza txikien aurka                                | X          |   |   |   |   |

■ Garrantzia oso handia    ■ Garrantzia ertaina  
■ Garrantzia zerbait    ■ Garrantzia gutxi





gernika-lumoko  
euskara zerbitzua



## **EUSKARA BATZORDEAK 2013ko OTSAILAREN 20an IZANDAKO BILKURARI DAGOKION AKTA.-**

### **Batzarreratuak:**

*Esperanza Uriarte and (Euskara Zinegotzia)*  
*Estiñe Astorkia and. (Euskara dinamizatzailea)*  
*Karlos Gorrrindo jn. (Trobatzailea/Itzultzailea)*  
*Jaione Iturbe and. (Udal Euskaltegia)*  
*Igone Olabarria and. (Gernikako AEK)*  
*Agurtzane Renovales and. (Barrutia ikastetxea)*  
*Pernando Basterretxea jn. (Bustu. Euskaraz Bizi Elk.)*  
*Rosa Okariz and.*  
*Aitor Bustindui jn.*  
*Maialen Basterra and. (Ezker Abertzalea)*  
*Luis Ortuzar jn. (Gernika Institutua – EAJ-PNV)*

### **Idazkaria:**

*Bittor Zarrabeitia jna. (Euskara Teknikaria)*

Hasiera ordua: 18:30

Amaiera ordua: 20:00





gernika-lumoko  
euskara zerbitzua



Ezin etorria zuritu dutenak:

*Edurne Atxikallende and. (Busturialdeko Irrati Telebista)*

*Idoia Fernández and.*

### 1).- Abenduaren 19ko saioaren berri ematea (akta).

Euskara Zinegotziak azalpenak eman ditu azken bileran egindako hausnarketari buruz (euskararen egoera udalerrian: pozteko faktoreak eta kezkatzeko faktoreak).

### 2).- 2017ra arteko Plan Estrategiko barria moldatzeko, partaidetza prozesuaren 2. saioa.

Lehenengo saioan egiteke geratu zen puntuari eutsi zaio: *“nola irudikatzen dugu 2017a euskarari dagokionez Gernika-Lumon?”*

Bildutakoen artean hausnarketa egin da; batzuk beteta ekarri duten fitxa oinarri bota dituzte ideiak eta, gainerakoek, bertan momentuan azaldu dituzte.

Batutako ideia guztiak jaso eta **I. eranskina** osatu da.

Jarraian, helburuka antolatu dira hiru lan-mahai hurrengo gaia lantzeko: *“zer egin dezakegu helburu estrategiko honetan 2017rako irudikatu dugun egoera horretara iristeko?”*.

Lan-mahai bakoitzak landutakoa komunean jarri eta **II. eranskina** osatu da, helburu estrategiko bakoitzeko ideiak zerrendatuz.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, amaitutzat jo da batzarra.

Izp.: Euskara Zinegotzia  
Esperanza Uriarte

Izp.: Euskara Teknikaria (HNT1)  
Bittor Zarrabeitia



## I. ERANSKINA

### 2017an helburu estrategiko bakoitzean zer izatea gura izango genukeen (IRUDIKAPENA)

| HELBURU<br>ESTRATEGIKOA   | Funtsezko<br>Esparruak  | Zelan irudikatzen duzu arlo bakoitza 2017an?<br>Hiruzpalau ideia jarri   |
|---|---|--|
| <p><b>1. Helburua</b><br/><b>Euskara</b><br/><b>Ondorengoetaratzea</b><br/><b>(transmisioa)</b></p> | <p>1.- Irakaskuntza<br/>2.- Euskalduntze Alfabetatze<br/>3.- Familia jarraipena</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Etorकिनen motibazioa transmisiorako areagotu egingo da (gurasoak)</li> <li>- Euskara ikasteko eskaintza pertsonalizatuagoa izango da (finantzazioa ziurtatua)</li> <li>- Hizkuntzarekiko atxikimendua areagotu egingo da. Euskaldunok konsziente eta arduratsu izango gara</li> <li>- Guraso euskaldunak euskaraz arituko dira euren artean...<b>2 HELB. ESTRAT.?</b></li> <li>- “D” eredu bakarra izango da. Hizkuntza eredu bakarra. Derrigorrezko eskolaldia bukatzean, euskararen ezagutza ziurtatuko duena; hau da, eroso jardun, eta lagunarteko komunikaziorako balioko diena gazteei.</li> <li>- Auzokideen bilerak euskaraz garatuko dira...<b>2. HELB. ESTRAT.?</b></li> <li>- Euskara ikasteko modulu sistema aldaketa/egokipena (HABE...)</li> <li>- Euskararen zuzentasunari/egokitasunari garrantzia emango zaio</li> <li>- Helduen euskalduntze eta alfabetatze dohainekoak, baina era berean, helburuak lortu izana neurtuko duen sistema.</li> </ul> |



| HELBURU<br>ESTRATEGIKOA                                   | Funtsezko<br>Esparruak   | Zelan irudikatzen duzu arlo bakoitza 2017an?<br>Hiruzpalau ideia jarri   |
|---|--|--|
| <p><b>2. Helburua</b><br/><b>Euskararen erabilera</b></p> | <p>4.- Lan-mundua<br/>(politikagintza / lidergoa)</p> <p>5.- Aisia</p> <p>6.- Kirola</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Politikariak eredu izango dira erabileran</li> <li>- Langileak (administraziokoak) euskaraz jardun (liderrak)</li> <li>- Lan mundu pribatuan kontzientzia maila areagotuko da</li> <li>- Profesionalen zerbitzua euskaraz eskainiko da</li> <li>- Kirol monitoreek euskara erabiliko dute</li> <li>- Aisialdian euskara izango da nagusi</li> <li>- Euskararen erabilera ziurtatuko duen gizartea (eremu guztietan). Beraz, orain artekoa baino derrigortasun maila handiagoa. “Gure amonek ez zuten gaztelera ikasi polita iruditu zitzaielako”</li> <li>- Administrazioaren menpe dauden lehiaketetan, euskara izango da ardatz. Bestelakoetan ere, legediak hori ziurtatzera joko du.</li> </ul> |

| HELBURU<br>ESTRATEGIKOA                                 | Funtsezko<br>Esparruak   | Zelan irudikatzen duzu arlo bakoitza 2017an?<br>Hiruzpalau ideia jarri   |
|---|--|--|
| <p><b>3.- Helburua</b><br/><b>Euskara elikatzea</b></p> | <p>7- Kulturgintza<br/>8.- Komunikabideak<br/>9.- Teknologia berriak</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Interneten eta sara sozialetan euskara oinarri</li> <li>- IKTak kalitatezko euskararen eskainiko dira eta modu ulerterrazean</li> <li>- Euskara beharrezko izango da kulturgintzan aritzeko</li> <li>- Kultur eskaintzan euskara lehenetsiko da (kanpotik datorrenerako kasuan...)</li> <li>- Kultur sorkuntza euskaraz areagotu egingo da (herrikoa...). Kulturgintzan, bultzada handia behar da, euskaraz egiten den kultur adierazpidea benetan lagunduz.</li> <li>- Udal aldizkaria euskaraz / euskara lehenetsiko da</li> <li>- Aldaba aldizkaria euskaraz /euskara lehenetsiko da)</li> <li>- Euskarazko euskal irrati eta telebista publiko sendoa eta konpetitiboa, ez umeei zuzendutako kateak soilik. Euskal Herri osoan arazorik gabe ikusiko dena.</li> <li>- Kate pribatuetan, euskarazko gutxieneko kanonak ezarri beharko lirateke.</li> </ul> |



gernika-lumoko  
euskara zerbitzua



## **EUSKARA BATZORDEAK 2013ko MAIATZAREN 21ean IZANDAKO BILKURARI DAGOKION AKTA.-**

### **Batzarreratuak:**

*Esperanza Uriarte and (Euskara Zinegotzia)*  
*Estiñe Astorkia and. (Euskara dinamizatzaillea)*  
*Karlos Gorrrindo jn. (Trebatazaillea/Itzultzaillea)*  
*Bittor Zarrabeitia (Hizk. Norm. Teknikaria)*  
*Jaione Iturbe and. (Udal Euskaltegia)*  
*Igone Olabarria and. (Gernikako AEK)*  
*Pernando Basterretxea jn. (Bustu. Euskaraz Bizi Elk.)*  
*Rosa Okariz and.*  
*Ariane Ensunza and.*  
*Luis Ortuar jn. (EAJ-PNV / Gernika Institutua)*

Hasiera ordua: 18:30

Amaiera ordua: 19:30

Ezin etorria zuritu dutenak:

*Barrutia ikastetxea*

*Mertzede ikastetxea (Anabel Gerrikabeitia)*

*Oiz-mendi telebista*





gernika-lumoko  
euskara zerbitzua



Honako batzarra, maiatzaren 14koaren jarraipena da.

**Gai bakarra.- Euskararen normalizatorako Plan Estrategiko berria (2014-2017) eratzeko dinamizazio saioak: hirugarrena (esparruetako ekintzak zehazteko hausnarketa).**

Maiatzaren 14ko batzarrean finkatutakoari jarraipena emanda, hausnarketari ekin zaio eta bigarren eta hirugarrena helburu estrategikoekin (2.a euskararen erabilera eta 3.a euskara elikatzea) loturiko ekintza proposamenak gehitu dira.

Egindakoaren emaitza, I. eranskinean gorriz dagoena da.

Eta beste aztergairik ez dagoela, amaitutzat eman da batzarra.

Izp.: Euskara Zinegotzia  
Esperanza Uriarte

Izp.: Euskara Teknikaria (HNT1)  
Bittor Zarrabeitia



## I. ERANSKINA

### I. HELBURU ESTRATEGIKOA - EUSKARA ONDORENGOETARATZEA (transmisioa)

Esparruak: 1.- Irakaskuntza / 2.- Euskalduntze Alfabetatze / 3.- Familia jarraipena

| Gaur egun zer dago FALTAN edo zeintzuk dira hutsuneak  | “ZER EGIN DEZAKEGU helburu estrategiko honetan 2017rako irudikatu dugun egoera horretara iristeko?”   |
|--|---|
| - Ditugun azken datuak 2006koak (EUSTATen azkenak.....)  | - Jaurlaritzaren ardurapena errolda berriztatzen denean, euskarari buruzko galderak eta datuak jasotzeko bideak jorratu.  |
| - Adinekoen adin-taldean euskararen ezagutzak behera egin du nabarmen 1984-2006 urte bitartean (5,7 puntuko jaitsiera). Agian, 1960-1975 urte bitarteko fenomeno industrialaren ondorioz etorritakoak hor pilatu dira + adineko etorri berriak | - Giza-talde bereziei begirako alfabetatze-euskalduntze eskaintza indartu (merkataritza, ostalaritza, gurasoak, zaindariak, ...). Estrategia hori Berbalagunarekin lotu.  |
| - Ama-hizkuntza euskara dutenen portzentajea jaitsi egin da 1986-2006 urte bitartean Gernika-Lumon (% 5,38 gutxiago). Konfirmatu egin da hori Berritzeguneak 2010ean egindako “gelargazkiarekin”,  | - ARRUE ikerketako metodologia erabilita. Haur Hezkuntzako 5 urteko geletan azterketa sakona egin, gurasoen transmisioa dela eta. Transmisio jorratzeko proiektua abiatu .  |
| - Gurasoek umeekin euskaraz dihardute %65,6ko portzentajearen, baina euren artean gutxiago egiten dute (%50,4). Helduek kalean are gutxiago (%43,30).  | - Irakaskuntza zentroetako Normalkuntza Planetan gurasoekiko normalkuntza ekintzak sendotu eta Anbulatorioarekin ere harremanak sendotu (pediatria, matrona, haurdunaldiko taldeak,..). Gurasoekin bereziki landu |
| - Atzerritarren ia %78ak gaztelania du harremanetarako zubi hizkuntza (batzuk ama hizkuntza dutelako -%23 bat- eta gainerako %55ak erromantze hizkuntzatik datozelako –errumaniarrak-).  | - Gizarte zerbitzuekin elkarlanean aritu, etorri berriekiko gizarteratze lanean hizkuntza irizpideak kontuan izan daitezen. Protokoloan zehaztu   |
| - Ikasle etorkinen matrikulazioa asko igo da 2012an ere. Beste eskualde batzuetan kontrako joera izan da.  | - Jarraipen zehatza egin matrikulazioari etorri berriei dagokienean hurrengo urteetan.  |
|  | - Gizatalde bereziak merkataritzan eta ostalaritzan sortu (oinarrizko ikastaroa eta Berbalagunarekin lotu, euskaltegiekin elkarlanean)  |
|  | - Etorkinekin “bikote linguistikoak” egitasmoa garatu   |
|  | - Udan ludoteka familiarra antolatu (“familia lehiaketa...”?)   |

|  |   |
|--|---|
|  | - Jolaslekuetan eragiteko egitasmoak  |
|  | - Eskolaz kanpoko plan sektoriala egokitu, datu berrien arabera   |
|  | - Pediatriarekin sakondu elkarlana (emagina). Erabilera + transmisioa   |
|  | - Jaurlaritzari biztanle erroldaren gainako informazioa eskatu (errolda berria egiterkoan datu jasotzeko irizpideetan eragin) |
|  | - Gurasoei begirako normalizazio proiektuak definitu ikastetxeekin (hitzaldiak, eusliderrak,...)                              |
|  | - Etorkinentzat harrera protokoloan, Euskara Zerbitzuarekin harrera bilera txertatzea (Lanbide)                               |

## II. HELBURU ESTRATEGIKOA – EUSKARAREN ERABILERA

Esparruak: **4.- Lan Mundua / 5.- Aisia / 6.- Kirola**

| <b>Gaur egun zer dago FALTAN edo zeintzuk dira hutsuneak?</b>   | <b>“ZER EGIN DEZAKEGU helburu estrategiko honetan 2017rako irudikatu dugun egoera horretara iristeko?”.</b>  |
|---|--|
| - Politikarien jarrera (egiten dutenak efektu biderkatzailea dauka)   | - Politikariak eredu izatea (tailerrak egin, lidergoa landu, euskara eta prestigioa).  |
| -Kirol arloa: monitoreen hizkuntza kontzientzia, ereduak falta, barne erabilera Kirol federazioen gaztelaniarako joera  | Ahozko erabileraren diagnostikoa (1) egin. Datuak eskuetan izanda, Kirol patronatuarekin elkarlanean jorratu. Kirol patronatuko diru-laguntzetan irizpideak txertatu, diru-laguntza kopurua zehazteko puntuazioan kontutan hartu euskararen erabilera..<br>Hitzarmengintzako proiektutik bideratu (2)<br>Alkarbideren bidez kirol federazioetara iristeko bidea egin (3) |
| - Lan-munduan (pribatuan) zerbitzua gaztelaniaz ematen da   | - Lan-mundu pribatuan kontrataziorako hizkuntza irizpide minimo batzuk jartzea. Udala bezero den heinean protokoloa zehaztu udalak eskera egiteko bere hornitzaile guztiei aurrekontu eta faktura guztiak euskaraz izan daitezten.   |
| - Enpresa eta merkataritzako kopuru osotik portzentaje txikia da hitzamenkide (% 14,46) nahiz eta garrantzizkoenak kanpainan izan. Hutsunea ostalaritzan eta profesionalen munduan. | - Hitzarmenkide kopurua gehitzeko kanpaina berezia egin, 2013an egindako inkesta eta honen emaitzak oinarri.   |
| - Udalerriz gaindiko erakundeetan ezin eragin izana (Merkatal ganbarak, enpresari elkarteak eta federakuntzak, enpresa matrizeak –aseguru etxeak, banketxeak, frankiziak-).         | - Alkarbiden lan-mahai berezia sortu. Aldundia bitarteko horrelako erakundeetan eragiteko protokoloak finkatzearen.  |
| - Udalerrri mailako merkatarri elkartearekin elkarlana eskasa, nahiz eta puntualki harremanak izan diren.   | - Merkatarri (eta ostalari) elkartearekin hitzarmena sinatu, guk euren foroetan eta eurek gure foroetan parte hartzeko: elkar laguntzen.   |
| - Hitzarmenkide diren gizarte ongizate arloko elkartearen erabilera bereiztu eta askoz baxuagoa da (2012an %55,73; barrukoa %26 baino ez eta kanpokoa %47).                         | - Ongizate arloarekin elkarlan berezia eratu, bere menpeko erakundeekiko harremanetan hizkuntza irizpideak txertatzeko.  |

|   |  |
|---|--|
| <p>- Kaleko erabilera jaitsi egin da zerbait (2008an %52..... eta 2011n %48.9)</p>  | <p>- Erabilera gehiago sustatu (tailerrak, hiztegiak, sentsibilizazio kanpainak,...) Helduen adin-taldean kontuan hartu. Oso zabala da eta kasu gutxien egitean zaiona (berariaz behintzat). Berbalagun indartu eta Hizkuntza portaeretan eragiteko tailerrak antolatu</p> |
| <p>- Gazte Plana bertan behera utzi da eta ez dago erreferente bat gazteen aisialdirako estrategiak lantzeko.</p>   | <p>- Gazte Plana berpiztu edo ordezeko plan estrategiko bat eratu.</p>   |
| <p>- Helduei Kultur Etxetik bideratzen zaien aisiaren datuei buruz lausoa daukagu, diagnostiko/balorazio/indize falta (Kultur Etxearen bitartez bideratzen diren tailerrak, ikastaroak, partaide kopuruak,...).</p> | <p>- Kultura arloak aisialdirako egiten duen lana sistematizatu eta, hizkuntzari buruzko datuak aintzat hartuta, indize sistema bat eratzea balorazioak egiteko. Urte bakoitzerako helburua adostu Kultur Etxearekin</p>   |
|   | <p>- Bezeroei begirako sentsibilizazio kanpaina</p>  |
|   | <p>- Osakidetzako Bigarren Euskara Plana gure herrian betetzearren foroa eratu</p>   |
|   | <p>- Lan-taldea sortu politikarien inplikazioa eta lidergoa lantzeko.</p>  |
|   | <p>- Alderdi politikoekin batzartu, hautagaien gaitasun linguistikorako irizpideak finkatzeko</p>  |
|   | <p>- Merkataritza, ostalaritza eta Bai Urdaibairekin bilgunea</p>  |



### III. HELBURU ESTRATEGIKOA – EUSKARA ELIKATZEA

Esparruak: 7.- Kulturgintza / 8.- Komunikabideak / 9.- Teknologia berriak

| Zer dago FALTAN edo zeintzuk dira hutsuneak  | “ZER EGIN DEZAKEGU helburu estrategiko honetan 2017rako irudikatu dugun egoera horretara iristeko?”.  |
|--|---|
| - Kulturgintzarako giza eta diru baliabideak behar dira  | - Kultura sorkuntzarako baliabide gehiago eman (giza eta diru baliabideak / aldizkariak, egunkariak, antzerkia,...) eta irizpideak ezarri sorkuntza bultzatzeko.  |
| - Herri mailako albisteak, berriak, sortzen direnak, komunikazio mailan erakargarriagoak behar dute izan (sare sozialak gutxi erabiltzen dira)   | -Euskara zerbitzuaren Facebook eta twitter sortu  |
| - Kultura sortzaileen eskura diru baliabide gehiago behar.   | - Toki eragileekin elkarlana sustatu. Bake leku txokoarekin helburua adostu eta elkarlanean aritu. ASTRArekin elkarlana.  |
| - Kultur ekintza asko (hitzaldiak, tailerrak,...) ez dira euskaraz egiten  | Helburua adostu, urteko kuotak jarri (kopurua)  |
| - Udal liburutegian euskarazko fondoa asko igo den arren (2004an 5.228 eta 2011n 9.194) fondo orokorrarekiko portzentajeak ez du gora egin (%25 orduan eta hortxe mantentzen da 2011n).  | - Ahalegin berezia egin udal liburutegian euskarazko fondoa gehitzeko. Liburutegiko teknikariarekin helburua adostu eta landu.  |
| - Udalerriko hedabideek erabiltzen dituzten hizkuntza ereduak ez dira berdinak eta hitzunikiko komenigarria nolabait bateratzea.<br>-Erakargarriak gazteentzat?. HITZA OIZMENDI, BAGABIZ | - Hedabide desberdinetan hizkuntza eredu antzekoak eskaintzeko, bilgunea sortu eta irizpideak adostu elkarrekin. HEDABIDEEN BILGUNEA SORTU Bilgune horretan landu hedabideen “arrakasta” ... eragin eremuak finkatu...                  |
| - Eragile batzuekin urte batzuetan izandako elkarlanari ez zaio eutsi behar beste (KZ gunea, Informatika saltokiak,..).  | - Ikastaro bereziak antolatzeko elkarlana planteatu eragileei (duela urte batzuk izandako saiakerari jarraipena: udalaren web orria, euskarari buruz sarean dagoena, hitzarmen-kideei begirakoak –enpresa, merkataritza, elkarteak,...) |
|  | - Kultura Plan Estrategikoa eratzea proposatu Kultura Batzordeari   |
|  | - Gazteen ekimen komunikatiboak sustatu teknologia berrien eskutik  |